


# AIURRI

BETERRI-AIZTONDOKO HAMABOSKARIA



AIURRI

**Batis Kortajarena, ibilbide luze eta oparoa halterofiliari lotuta** / 9-11



AIURRI

**Zuhaitz landaketa Muntton, Eguzki talde ekologistak antolatuta** / 14-15



AIURRI

**Ekitaldiak, Ttottonen heriotzaren 25. urteurrena gogora ekartzeko** / 16-17

**Junior mailako taldea aurkeztu du Zizurkilgo Danena taldeak** / 12-13



## MARTXOAK 8

Hamaika ekitaldi eskualdean barrena / 4-5

AIURRI

# Andragora zabalik da

Libe Muguruza Andragora Tolosaldeko emakumeen etxeko arduradunarekin elkarrizketa / 6-8



# Alsazia eta Selva Negra

Maiatza

**NOAOOA** BIDAIAK Noaoak gidatutako talde bidalak Lasarte-Oriatik Irtenda

943 37 36 13 • info@noaooa.eus • Hipodromo Elorbidea, 10 • Lasarte-Oria

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

# EZ GARA JAITSIKO!

**Martxoak 15, ostirala**  
Sarobe antzokia. URNIETA  
Bi saio: 17:00 / 19:00

**8€** Sarrerak salgai:  
2KN, Ernaitza, Aiurri



# Bultza zure etorkizuna izarretarantz

...eta bidali iezaguzu zure curriculumak, baldintzak betetzen badituzu Zientzia eta espazioa bezalako sektoreetan mundu mailako proiektuen buruan dagoen enpresa baten zati izan nahi duzue?

**BULEGO KOMERTZIALERAKO INGENIARIA BILATZEN DUGU**  
Ingeniari Teknikoak edo Diseinu eta Fabrikazio Mekaniko Graduak bilatzen ditugu

<p><b>ESKATZEN DUGUNA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ingeniari teknikoak/ goi mailakoa eta/edo fabrikazio mekanikoko diseinuko goi mailako gradua</li> <li>Planoak interpretatzeko gaitasuna</li> <li>Solid Works, Excel eta Solidedge menperatzea</li> <li>Hizkuntzak, ingelesa (beste hizkuntza batzuk baloratuko dira; euskara, frantsesa, ingelesa, alemana)</li> <li>Taldean lan egiteko gaitasuna</li> </ul>	<p><b>EGINKIZUNAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Merkataritza-taldeko kideei laguntzea</li> <li>Eskaintzak baloratzeke piezkatzeak egitea</li> <li>Soldadura-kordioak kalkulatu</li> <li>Eskaintzak idaztea</li> <li>Eskaerak irekitzea, abiaraztea eta marbxan jartzea</li> <li>Hornitzaileen kontsultak</li> <li>Eskaintza konplexuak gidatzea eta prestatzea, gauzatu arte</li> </ul>	<p><b>ESKAITZEN DUGUNA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Etengabe hazten ari den Europako galdaragintza liderreko kide izatea</li> <li>Zientzia, espazio eta energia sektoreetan mundu mailako proiektu paregabeak garatzea</li> <li>Ordainsari eta baldintza erakargarriak</li> <li>Lan-giro ona</li> <li>Garapen profesionala</li> </ul>
--	--	---

Curriculumak, espero zaitugu:  
<http://cadinox.com/lana1/>

**cadinox**

gozologia **arruti** pasteleria **IBARRI**



**Etxeko obradorea**  
**Enkarguak jasotzen ditugu**



Zumea 18, ANDOAIN  
**943 593 777**





## IRITZIA



AMAGOIA ESKUDERO LURGATZ

## 2024

**I**ritzi artikulua idaztearen aukera suertatu zaidan honetan, gaia M8 eta feminismoa izanik, segituan etorri zait burura zertaz idatzi. Zaintza jarriko dut erdigunean eta horretarako orri bat dudala kontuan izanik, gizonak izango ditut hizpide. Hain zuzen, duela gutxi gizon baten ahotan jaso nuen jarraian aipatzera noana zabaltzearen beharra ikusten zuela.

2023. urtea ezinbestekoa zait aipatzea, non, azaroaren 30ean Greba Feminista Orokor historikoa izan genuen. Euskal Herriko Mugimendu Feministatik, Bilgune Feministak zein Euskal Herriko beste mugimendu feminista ugari indarrak batu eta saretuz, ekintza aurrera eramatea lortu zuten gehiengo sindikalaren babesarekin. Greba orokorra izanik, emakumeez\* gain, gizonezkoak ere egon ziren presente zein at eta oso esanguratsuak izan ziren gizonekin izan ziren harremanak. Bertan profil desberdinekin egin genuen topo: gaia beraiekin ez doala esaten zutenetik gaia landu beharra dagoela ziotenetaraino.

Greba azaroaren 30ean izan zen arren, 2023a zaintza lanak ikusarazteko

urtea bezala izendatuko nuke. Lanketa ez da egun batean zentratzen eta egunak bezain besteko garrantzia du prozesuak. Eguna iristerako, zaintza beraiekin ez doala dioten gizon askok ezin izan zuten ordurarte bezala ez ikusiarena egin, zeren greba egin behar zuten ala ez esan behar baitzuten. Orduan, beraiek horretarako ez direla jaio zioten gizonak agertu ziren, baina ez denak. Batzuek, beraiek laguntzeko prest zeudela zioten. Laguntzeko prestutasun hori, grebaren harira izan zitekeen, non, lidergotza mugimendu feministak zeraman baina esan beharra daukat orain arte ere jarrera bera izan dutela askok. Esaterako, etxeko lanak egiten laguntzen dutela. Baina argi eta ozen esan behar diet beren egunerokoan izan beharko luketen funtzioa ez dela laguntzea, baizik eta beren betebeharrak betetzea.

Bizitza erdigunean jartzeko garaian, ezinbestekoa da aipatzea denok ez dugula posizio bera. Beraz, leku desberdinetan egonik, ez ditugu egin behar berdinak izango. Aukera-berdintasun batetara heldu nahi badugu, zaintza lanak banatu behar ditugu eta

batzuek motxilako harriak hustutzearekin batera, beste batzuk bete egin beharko dituzte. Bizi dugun sistema heteropatriarkal kapitalistan emakumeok\* gizonen baino kalte handiagoak pairatzen ditugu eta emakume\* arrazializatuak oraindik eta gehiago. 2024an egonik, gaiarekin jarraitzea dagokigu; prozesuak hor darrai. Emakumeok\* lanean jarraituko dugu bereziki emakumeon\* eskubideak aldarrikatuz, gizonak zein instituzioak interpelatuz, baina kontutan izanik, zaintza partekatze prestutasuna duten gizonak ere badaudela eta borrokan jarraituz, eskailerak pittinka igoaz, hainbat helburutara heltzeko bidea egiterik badagoela. Emakumeok\*, hurrengo pausoa, 2024ko martxoaren 8a izango dugu eta bertan ere zaintza erdigunean jartzen jarraituko dugu ikusi nahi ez dutenei ikusarazten eta eraldaketarako bidea eginez. Gizonei dagokienean, dei egiten diet hausnarketarako beraien espazioak zabal ditazela, maskulinitate toxikoa lantzeko espazioak dauden antzera, ez daitezela beren isiltasunetik konplize izan eta eutsi diezaietela zezenari adarretatik.

**AIURRI**  
BETERRI-AIZTONDOKO HAMABOSKARIA

**EGOITZA:**

Arantzibia plaza, 4-5. Andoain.  
Tel.: 943 300 732.

**Erredakzioa:**

Ainhoa Gil, Jon Ander Ubeda,  
Xabier Lasa, Mikel Arberas,  
Alba Cabrera, Irune Alfonso.

**Diseinua:** Goiena.**Maketazioa:**

Maddi Truxuelo.  
diseinua@aiurri.eus

**Edizio jarraia:** www.aiurri.eus

**ERROITZ**  
BALTZU MUGATUA

**Publizitate arduraduna:**

Fernanda Irazu.  
publizitatea@aiurri.eus  
605 718 041

**Administrazioa, harpidetzak:**

Garbiñe Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.eus

**Lege Gordailua:** SS-202/94.**ISSN:** 1134-0614.**Tirada:** 1.650 ale.**Inprimategia:**

Antza inprimategia.

**Banaketa:**

Aiurri ordainpeko banaketa bidez banatzen da.

**Banatzaleak:**

Andoain: Rocío Arias.  
Amasa-Villabona, Aduna, Zizurkil,  
Asteasu eta Larraul: Gorka Novillo.

**Urteko harpidetza saria:** 40 €.

**Kioskoan salgai:** 2,50 €, aleko.  
Andoain: Emaltza, Stop.  
Amasa-Villabona: Basajaun, Amasa kafetegia. Zizurkil: Ogi-zuri.

**Udalerrien babesarekin argitaratzen da****Bikaintasun ziurtagiria****Laguntzaileak:**

**TOKIKOM**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA

**andoainDARRA**  
euskaraz

# MARTXOAK 8KO EGITARAUA



Martxoaren 8an, arratsaldeko 18:30etan hasita dantzatuko da Irradaka Joxe Arregi plazan.

## ADUNA

### MARTXOAK 7

#### OSTEGUNA

**16:00 60 urtetik gorakoekin kafe-tertulia**

Guztionean zer egin adostuko dugu: jolasak, oinezko ibilaldiak, ikastaroak...

Txantxaneko kafetegian

### MARTXOAK 9

#### LARUNBATA

**19:30 Bakarrizketa 'Pototan'**

Mirari Martiarenaren eskutik. Elordi aretoan

**21:00 Afaría Zabala sagardotegian**

25 euro. Menu beganoa nahi izanez gero liburutegian jakinarazi

**DJ Naza**

### MARTXOAK 10

#### IGANDEA

**Aiztondo Klasika**

Txomin Perurena - Patxi Alkorta memoriale

## AIZTONDO

### MARTXOAK 8

#### OSTIRALA

**19:00 Manifestazioa**

Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik hasita

## ANDOAIN

### APIRILAK 20ra arte

#### Erakusketa

Salerosiak. Esklabotasunera Bidaiak. EmPoderArte taldearen eskutik. Basteroko erakusketa gela. Astl- ost.: 18:00-20:00. Lar.: 18:00-20:30.

### MARTXOAK 8

#### OSTIRALA

**17:00 Txapa lantegia**

Ludoteka.

**17:30 Autodefentsa ikastaroa**

Gaszte Lokala.

**18:30 Manifestazioa**

Goikoplazan hasita.

#### 20:30 Musika

Haize-arrosa taldea (Ez dogu zor ezer). Bastero (auditoria)

#### 20:30 Emakumeen afaria

Zumea plaza. Haurtzaindegi zerbitzua eskaintzen da.

### MARTXOAK 9

#### LARUNBATA

**12:00 Beldintasan oihalak**

Martxa San Juan Bautista Nagusien Egoitzatik abiatuta. Ekitaldi nagusia Bekoplazan.

**14:30 Emakumeen bazkaria**

Oianume jatetxean.

**17:00-20:00 Buruntzaldeko emakumeen IV. pala topaketa**

Parte-hartze irekia. Materiala utziko da. Arrate Pilotalekua



## LEIZARAN INSTITUTUA

- **DBH: D eredu**
- **BATXILERGOAK:** Zientifikoa, Humanistikoa, A eta D eredu
- **GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK:** Gizarte integrazioa A eta D eredu



Plazaola, 23 - 20140 Andoain  
Tel.: 943 899 259 - Faxe: 943 300 578  
012740aa@hezkuntza.net - www.leizaran.net



**MARTXOAK 12****ASTEARTEA****20:30 Antzerkia: El parto**

Bastero kulturgunea (auditoria)

**MARTXOAK 14****OSTEGUNA****18:30 Jon Artano kazetariaren solasaldia**JUANAREN istorio harrigarria.  
Bastero (ekitaldi aretoa)**MARTXOAK 16****LARUNBATA****18:30 Dokumentala**Zuengatik gara topaketa.  
Andoingo eskubaloiko jokalaria  
beteranoen berrelkartzea.  
Bastero (ekitaldi aretoa)**ASTEASU****MARTXOAK 8****OSTIRALA****19:00 Ztandap antzezlan**

Udaletxeko areto nagusian

**Ondoren, Rosko feminista**

herriko tabernetan

**21:00 Afaria Iturriondon****Ondoren, bingoa**

goizaldera arte

**LARRAUL****MARTXOAK 8****OSTIRALA****18:00 M8 mobilizazioa bailaran**

Herriko plazan elkartuko gara

elkarrekin Zizurkilera joateko

**21:00 Filma**

Quiero ser como Beckham.

Gune polibalentean.

**MARTXOAK 9****LARUNBATA****Emakumeak mendira!**Plazatik atera eta Zelatunera  
mendi irteera. Hamaiketako eta  
buelta.**Emakumeen afaria**Izena ematea 634 289 327an  
martxoaren 6 arte.**VILLABONA****MARTXOAK 7****OSTEGUNA****Autodefentsa ikastaroa**

Gaztetxoentzat Subijanan.

**MARTXOAK 22****OSTIRALA****18:00 Arrazistak al gara?**

Txoko Morean (Lurgatz).

**ZIZURKIL****MARTXOAK 8****OSTIRALA****18:30 Irradaka**

Joxe Arregi plazan

**MARTXOAK 9****LARUNBATA****Emakumeen eguneko irteera**

Berdintasun oihalak. AIURRI



Ztandap. NOAUA



Zabala sagardotegian afalduko dute aurten, Adunako emakumeek. AIURRI

# Martxoak 8

## Aiurri.eus webgunean

• Argazkiak • Bideoak • Albisteak

**Okm:**batzen gaituen  
distantzia



# "Emakumeek etxearen potentzialtasuna ezagutzea nahi dugu"

LIBE MUGURUZA AGIRRE ANDRAGORAKO TOLOSALDEKO DINAMIZATZAILEA

2018an hasi ziren Tolosaldeko emakumeek Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea lortzeko lanean. Gaur, atek irekita daude zerbitzuak jaso edo, arratsalde pasa bertan goxo egoteko

IRUNE ALFONSO ASTEASU

**Andragora Tolosaldeko emakumeen etxea da. Eskualde osoko emakumeen gunea alegia, 28 herriak bilduko ditu.**

**Libe Muguruza:** Etxearen finantzaketa eskualdeko 24 herrien artean osatu da. Etxea inolako zalantzarik gabe eskualde osoarena da, eskualde osora iritsi nahi dugu. Andragorako erronka handiena hori izango da hain zuzen, 28 herriak kudeatzea. Fisikoki Tolosan gaudede, baina, Tolosaldeko emakumeen etxea da. Pixkanaka gure bidea eraikitzen ari gara eta iristen zaizkigun eskariei erantzuna ematen.

Hainbat herritatik iritsi zaizkigu eskaerak; alde batetik, proposamen eskaerak izan dira. Adibidez, Martxoak 8ari begira, ideia eske etorri zaizkigu eguna antolatzeke garaian, eta guk herriaren arabera proposamen eta aukera desberdinak zabaldu dizkiegu.

Beste alde batetik, Andragora etxearen aurkezpen eskaerak egin dizkigute, askotan, gure herrietatik mugitzea asko kostatzen baitzaigu. Proposamen honek baiezkoren bat izan du, baina, ez dugu bide horretan zentratu nahi. Gureraren etortzea nahi dugu, ahalik eta jende gehien saiatu hona gerturatzen, azken finean, espazio fisikoa eta habitatu dena hemengoa da, eta, ego-kiagoa eta askoz ere interesgarriagoa da emakumeek hona



Arratsalde pasa etor zaitezke etxera, kafetxea hartu edo irakurtzera. AIURRI

etortzea eta honen potentzialtasuna ezagutzea. Ideia gehiago ere atera dira baino oraindik ez ditugu aurrera eraman, eraikitze prozesuan gaudete. Komenigarria izango litzateke programazioa edo ikastaroak herri desberdinetan egitea edo Tour txikiak egitea Tolosaldea inguruan

**Zertarako sortu da emakumeen etxe bat?**

Bost multzotan bildu genitza-ke helburuak eta arrazoiak:

**"19 EMAKUME IZAN DIRA ARTATUAK DAGOENAKO"**

**1. Gutasun baten parte sentitze-ko.** Gertutasuna eta konfiantza eskaintzeko, entzuna eta ulertua izateko, parte sentitu eta izateko, seguru eta babestuak sentitzeko, libre izateko, eta aisialdiko jarduerak lantzeko giroari arreta berezia jarrita.

**2. Sareak eraikitze.** Emakume anitzak (adina, jatorria, klasea, ideologia, gaitasun...) elkartzeko, saretzeko eta sinergiak lantzeko; eskualde-

**"ERREFERENTEA IZAN NAHI DUT ESKUALDEKO HERRIENTZAT"**

ko mugimendu feminista sendotzeko eta honekin batera, eskualdeko emakume guztien indarrak batzeko, horrela, emakume taldeen egoitza sortuz.

**3. Ahalduentzako.** Informazioa jasotzeko eta ikasteko, horrela, garapenerako gunea izanik. Emakumeak etengabe ahalduentzako; jabetze Eskola antolatzea. Feministak sortzeko laborategia izateko eta feminismoaren inguruko sensibiltzazioa lantzeko.

**4. Eraldaketa sozialerako.** Eraldaketaren ikuspegitik jendarteko eremu guztietan politikoki eragiteko (behartoki kritikoa): elkarte gastronomikoak, ikastetxeak, jaiak, enplegua, zaintza lanak, etab.

**5. Indarkeria matxista ikuspegi integratetik lantzeko.** Balia-bide publiko komunitarioak eta tresna kolektiboak eskaintzea.

**Etxea sortzeko prozesua luzea izan da. Eskualdeko emakumeek gogotsu daude bertan parte hartzeko?**

2018. urtean hasi zen proiektua parte-hartze prozesuarekin, ondoren, pandemia etorri zen eta geldituena izan zen. Gerora, 2021. urtean berriz hasi zen parte-hartze prozesuaren bigarren fasea, amaiera. Zalantzarik gabe prozesua oso luzea izan da eta emakume askok hartu du parte bertan. Indar handia jarri da eta denbora asko eskaini zaio proiektuari, horregatik erronka handia izango da sortu diren behar eta espektatiba horiei guztiei erantzutea.

Etxeak kogestio sistema baten bidez funtzionatzen du eta mugimendu feministak eta etxeko langileek bideratzen dute. Antolatzeke gune desberdinak daude: talde eragilea, koordinazio gunea, eta gune zabala. Talde eragilean ildo estrategikoak erabakitzen dira, helburuak eta etxearen dinamika osoa antolatuko duena. Bertan, Tolosaldeko mugimendu





Eskualde osoko emakumeentzat osaturiko etxea da, Andragora. AIURRI

mendu feministako kideek, Tolosaldeko berdintasun teknikariak eta dinamizatzailerak parte hartuko dute. Koordinazio gunean ordezkaritza politikoa dago eta lau politikari egongo dira bertan. Bi Tolosako Udalaren aldetik eta beste bi Tolosaldea ordezkatuz. Halaber, bertan parte hartuko dute talde eragileko ordezkaririk, Tolosaldeko berdintasun kontseiluko ordezkaririk, lan taldeko ordezka-

riak, Tolosaldeko talde feministetako ordezkaririk eta baita Tolosaldeko berdintasun-teknikari eta dinamizatzailerak. Gune hori jarraipen orokorra emateko eta Udala eta eskualdeko talde feministen artean, solaskidetzak mantentzeko izango da. Gune zabala espaziorik asanblearioena da eta erabakiak hemen hartuko dira. Interesa duen edozein emakume da gonbidatua gune zabalera, eta ber-

tan, etxeari dagozkion erabakiak hartuko dira. Urtean bi aldiz biltzeko asmoa dago printzipioz, nahiz eta talde eragileak hilabeteko biltzeko konpromisoa hartzen duen, eta hemen, beharrenez araberak ere, lan taldeak sortu daitezke; iraunkorrak ala ez iraunkorrak.

Oraingoz oso erantzun polita izan dugu, izan ere, gune zabala astelehen honetan izan dugu, otsailaren 26an, eta

jende anitza gerturatu da. Oso sentazio ona izan genuen. Talde eragilearen bigarren bilera martxoaren hasieran izango dugu, oraindik denbora eskatuko digun prozesua izango da.

**Oraingoz zein ekintza burutu dira?** Tolosaldeko Udaletik antolatzen diren Jabetza eskolako ikastaroak bertan eman dira. Santa Ageda bezpera eguna zela eta, emakume batzuk elkartu eta korua antolatu zuten; Ageda bezpera pagano eta feminista. Andragora etxeko espazio bat erabili zuten entseguak egiteko eta egunean bertan 30 emakume bildu ziren.

Honekin lotuta, etxearen zerbitzu bat horixe bera da, espazioen eskaera. Gela asko eta desberdinak daude, 600 metro karratu ditugu, eta bizia eman behar zaio etxeari. 28 herrietan ez daude espazio berak eta aukera aparta izan daiteke hemen norbere herrian antolatu ezin duena antolatzeko, atek irekita daude. Martxoaren 8aren bueltan ere zerbitzu antolatuko dugu.

**Aholkularitza juridikoak lehen egunetan eskaera handia izan zuten. Eta orain gutxi, aholkularitza psikologikoa eskaintzen ere hasi zarete. Zein zerbitzu gehiago eskaintzen dituzue?**

Etxean lehen arretoa eta bideraketa eskaintzen da. Etxea irekita dagoen ordu guztietan ematen den zerbitzua da. Aholkularitza juridikoari dagokionez, bi astez behin etortzen da, astearte arratsaldetan lau orduz, eta aholkularitza psikologikoa aldiz, astero bost orduz.

Aholkularitza juridikoa zerbitzua larrialdi baten ondorioz hasi zen ematen eta ge- →

**FRANCISCO MENDIKUTE**  
Harategia - Urdaitegia

Esne produktuak, hautatutako kontseilak eta kalitatezko okela

Euskal Herriko produktuetan oinarritua

Kaletxiki, 15  
☎ 943 590 258  
ANDOAIN

**TXERRIKIEN BANATZAILE ETA EKOIZLEA**

ENPRESEN ZENTRUA. Ama Kandi, z/g  
307. Moduloa ANDOAIN. ☎ 943 592 923  
www.ormaki.net



Andragora etxera sartu eta Libe zain izango duzue arreta emateko. AIURRI

→ rora, zita guztiak bete ziren izugarritzko beharra zegoelako. Aholkularitza psikologikoari dagokionez, itxaron zerrenda txiki moduko bat genuen, jendea galdezka etorri baitzitzagun. Azaldu beharra dago, bi zerbitzu horiek aholkularitzak direla, hau da, lehenengo sarrera egiten dute; zalantzak argitu eta lehenengo laguntza eman. Aukera hauetan, abokatu batengana iristen lagunduko dizute, edo psikologiaren alorrean, gehienez, bost saio hartzeko aukera eman eta gero, beste batengana bideratu.

Aukera hauez gain, Kafe Tertulia jarri da martxan. Sos Arrazakeriak eramaten du eta etxeko langileak diren emakumeak biltzeko espazio bat da non euren bizipenak, beharrak eta sentimenduak elkarbanatuko dituzten.

Eta azkeneko berrietasun bezala, indarkeriarik gabeko espazioa sortuko da. Astero

egingo den espazio ireki bat izango da, bi orduko iraupenarekin. Indarkeria matxista jasan duen edozein emakume bertaratu daiteke. Talde egitura izango du eta dinamika desberdinen bitartez lanketak egingo dira. Proposamena aurretik Oarsoaldean egin zen eta oso interesgarria izan zen. Dinamizatzaileak gai desberdinak jorratuko ditu; arnas-keta, dantza... eta taldearen arabera antolatzen joango dira. Erreparazioaren bidean arreta integrala eskaintzeko behar-beharrezkoa da eta apiriletik aurrera antolatzeko asmoa dago.

#### **Guztira zenbat emakume artatu dituzue jada?**

Orain arte 19 emakume artatu dira. Horietako batzuk hitzorduak errepikatu dituzte beharrak hala eskatzen zuelako, beste batzuk aldiz, hitzordu batekin nahikoa izan dute jarraipena egiteko. Arreta integral bat emateko bi aholkularitzak oso lagunga-

rriak dira, biak uztarturik biribiltasuna lortu dugu. Indarkeriarik gabeko espazioa sortzen denean ere laguntza handia emango du eta jabetza eskolak ere ahalduzko balioko du, emakume batzuek talde izaera edo komunitatea behar dutelako eta ikastaro hauek oso baliagarriak izan daitezke.

#### **Asteasurra zara eta Asteasuko berdintasun teknikaria ere izan zara lehenago.**

Formazioz antropologoa naiz eta jarraian masterra egin nuen ikerketa feminista eta generoaren inguruan. Masterra amaitu ondoren, Bilboko aholkularitza batean berdintasun teknikari lana egiteko aukera izan nuen hilabete batez, eta bertan ikusi nuen teorikoki asko gustatzen zitzaizkidan gai horiek, modu batean errealitatera eramateko aukera bazegoela. Horretaz jabetuta, Asteasun aukera izan nuen, Europako dirulaguntza baten bitartez, Asteasuko berdinta-

sun-teknikari izateko urtebetez eta Asteasuko amaitzean nuela iritsi zitzaidan postu honen berri.

#### **Herri txikien egunerokotasuneko dinamika ongi ezagutuko duzu. Herri txikientzat funtzionala eta eraginkorra izango dela uste duzu?**

Herri txikien dinamika asko gustatzen zait. Guztia irisgarriagoa dela iruditzen zait eta askoz ere pertsonalagoa. Banakako harremanetan asko eragiten da, baina bere mugak eta zailtasunak ditu, bere baliabide edota baliabide ezak bezala. Ezin dira alderatu Tolosako Udalaren aurrekontua edo baliabide teknikoak, edo Asteasu batek eduki dezakeena. Herri txikietan pertsona batek alor asko jorratu ditzake, berdintasuna kultura, gazteria, liburutegia... alor guzti horiek landu nituen nire kasuan.

Dinamika oso desberdinak dira eta ni Asteasun berdintasun-teknikari bezala lanean aritu nintzenean, oso arraroa egiten zitzaidan. Gipuzkoako Foru Aldundiak lan egiteko gune bat du Berdinbidean izenekoa eta berdintasun sail egonkorak ez dituzten herri txikientzat (10.000 mila biztanle baino gutxiago) dago sortua. Espazio honetan inor ez zen berdintasun teknikaria, guztiak, kultura laguntzaile, gizarte langileak... oso arraroa zen.

Horregatik, nik asko esker-tuko nuke bertan lanean nengoela Andragora edukitzea, erreferente bat izan eta bertan proposamen desberdinak egin, bideratu eta laguntza eskatzeko aukera izatea. Ikuspegi horretatik lagungarria eta erreferentea izan nahi dut herri txikientzat.



# Xixori

BELARDENDAK ANDOAINEN

**Dietetika zentroa**  
**Kontsulta naturista**  
 Txitibar, 4 ☎ 943 245 023  
 Eskola kalea, 3 ☎ 943 590 199



## "Argi dut beti egongo naizela halterofiliari lotuta"

**BATIS KORTAJARENA** DENOK DANENA TALDEKO PRESTATZAILEA

Etxean jaso zuen Batis Kortajarenak halterofiliarekiko zaletasuna. Altxalari gisa urte batzutan aritu ondoren, prestatzaile lanari ekin zion eta hortxe aurkitu zuen bere pasioa

**ERREDAKZIOA** ESKUALDEA

**Pultsularien prestatzaile lanetan aritu zara urte luzez. Lekukoa pasa diozu datorren belaunaldiari... Nola bideratu duzue prozesu hori?**

Nik prestaketarako taulak egiten dizkiet kirolariei eta, hortik aurrera, entrenatzaileek hartzen dute jarraipena egiteko ardura. Ekaitz Kortajarena eta Jon Sasiain ari dira lan horietan. Bestalde, eskoletara ere joaten gara, halterofiliako hastapenak erakustera eta lan horietan Andres Silvera eta Jon Ander Iriarte dabilta. Lehen, egunero-egunero joaten nintzen entrenamendu saioak gidatzera eta orain, astean behin bakarrik joaten naiz.

Horrez gain, denbora gehiago eskaintzen diet gai burokratikoiei. Ez da nire gustuko gaia, baina egin beharra dago eta ikasten ari naiz horretan ere. Denok Danena taldeak badu egoitza berri eta propio baten beharra, eta helburu horri begira ari naiz bideratzen nire ahalegin guztia.

**Atzera begira jarrita, nola eza-gutu zenuen halterofilia?**

Etxean, aitona eta osaba aritzen ziren. Asteasuko Ondartza baserrikoak ziren eta baserriaren izenarekin ziren ezagunak. Halterofiliaren inguruko liburuetan ageri dira haien izenak.

Bost urte nituela Donostia-ra joan nintzen bizitzera eta han, atletismoan eta errugbian aritu nintzen. 19 urte inguru



26 urterekin hasi zen Batis Kortajarena halterofilian lehiatzen. AIURRI

nituela hasi nintzen halterofilian. Uda partean, errugbi denboraldian etena egiten zen eta indarra lantzeko ego-kia litzatekela iruditu zitzaidan. Halaxe hasi nintzen

halterofilian, errugbiaren osagarri gisa. Pixkanaka, atletismoa utzi eta kirol honetan gehiago murgiltzen joan nintzen. 26 urte inguru nitue-nean heldu nion serioago eta,

lehen emaitzak iristen hasi ziren.

**Eta nola iritsi zitzaizun prestatzaile izateko aukera?**

27 urterekin atera nituen horretarako beharrezkoak ziren tituluak. Belodromoan hasi nintzen prestatzaile gisa, lehiatzen nintzen bitartean. Bur-nizaleak taldea sortu, eta urte batzuetan eutsi genion talde hari. Momentu hartan, Errenterian egiten nuen lan eta oso gertu nuen Beraun auzoa. Bertako eskolan sartu eta halterofilia erakusteko aukera eman zidaten eta hura ikaragarria izan zen niretzat. 40 ume izaten nituen egunero entrenatzen eta beste hainbeste egoten ziren zai, halterofilian hasteko irrikan. Errenteriako kirol nagusia izatea lortu genuen eta emaitza bikainak lortu genituen, tartean hainbat eta hainbat Espainiako txapelketa irabaztea.

**Nola jaio zen Denok Danena taldea?**

1988an banandu, eta Zizurkilerira itzuli nintzen. Hiru ume nituen eta, momentu batean, seme zaharrenak laguntza eskatu zidan. Herriko jaietan erronka antolatuta zuten berak eta bere lagunak, festa giroa jartzeko. Bakoitzak bere gorputz pisua altxa behar zuen. Etxean aritu nintzen erakusten eta, festetako ekitaldia pasata, jarraitzeko gogoia piztu zitzaion. Horrela, 1990an sortu zen halterofiliako Danena taldea. Intxaur pilotalekuan egiten genituen entrenamenduak, farola baten argipean. Handik urtebetera Otaño eskolara jaitsi ginen entrenatzera. Urte asko joan da geroztik, eta emaitza ikaragarriak lortu ditugu.

**Prestatzaile gisa, jende asko pasa da zure eskuetatik...**

Zizurkilgo taldean, 134 mutil eta 60 emakume inguru pasa dira. Maila ikaragarrian egon da taldea urte askotan. Espainiako txapelketatan, esaterako, 564 domina inguru lortu ditugu. Europako txapelketarako sailkatzea lortu duten taldekideak 12 izan dira →

→ eta, munduko txapelketan edo olinpiar jokoetan ere izan dugu ordezkari. Azken 20-25 urtetan nagusi izan gara Euskal Herri mailan. Emakumeen artean, Lourdes Gorostegi, Ainhoa Regatos, Itziar Dorronsoro, Susana Davila... maila ikaragarria eman zuten. Orain Elena Mangas gure taldekidea da, Euskal Herriko onenen artean dabilena. Mutiletan, Jon Tecedor izan zen gehien nabarmendu zena. Horrez gain, asko izan dira maila altuan ibili direnak: Andoni Kortajarena, Gorka Lopez, Jose Antonio Barreda, Ekaitz Kortajarena, Teddy Martinez, Jon Sasiain, Iker Hernandez... edota orain bertan Eki Lizaso. **Herri-kirolariak ere gerturatu zitzaizkizun...**

Bai, Gibitegi izan zen lehena. 300 kiloko harria altxa nahi zuen eta bi bider huts egin zuen. Erronka gisa hartu nuen; halterofilian altxaldi bakarra egiten da eta harriarekin bere berdina. Alde horretatik, prestakuntzan aldekotasun handiak zeudela pentsatu nuen eta, horretan hasi ginen. Zizurkilan altxa zuen harria, erraz. Poz ikaragarria hartu nuen.

Aimar Irigoien izan zen hurrengoa. Bere osabarekin etorri zen eta hementxe ibili zen. Ahalmen ikaragarria zeukan. Hasierako lanak errazak izan ziren; lan motzak egiten zituen eta oso azkarra zen bera. Azkartasun hori aprobetxatu genuen. Apustua iritsi zen gero, eta hor lan zailagoak iritsi ziren. Ez neukan esperientziarik horretan. Halterofiliako prestakuntzan erabiltzen diren portzentai eta kalkulu berdinak prestatu nizekion, harrira eramanda. Emaizta



Kirol-lehia eta entrenatzaile lanak uztartu zituen hamar urte luzez. AIURRI

ikusgarriak izan zituen Aimarrek. Ez zegoen ezer eginda harrijasotzaileen prestakuntzari zegokionez eta honek jarri zuen bidea.

Aizkolariak ere izan nituen. Erronka zailagoa zen hura; muskulazioa oso ezberdina dute, askoz ere elastikoagoa. Proba batzuk egin genituen eta nahiko ondo ateratu ziren. Azurmendi aritu zen nirekin, Joseba Otaegi, Jon Irazu, Otaño, Belaunzarán, Alkizalete... batzuk pasa ziren. Kanflanka segalaria ere aritu zen nirekin.

Herrikirolak gertutik jarraitzen nituen lehendik ere. Nire aita amorratua zen eta gaztetxotan asko joaten nintzen. Gure kirola da eta barruagotik ezagutzeko aukera izan nuen.

**"ERRONKA GISA HARTU NUEN HERRI KIROLARIAK PRESTATZEA"**

**Emakume asko ikusten da halterofilian. Nolakoak izan da haien sarrera kirol honetan?**

Beraungo taldean ume pila bat sartu ziren eta ia-ia denak mutilak ziren. Azken ikasturtean gerturatu ziren bi neska. Danena taldea sortu zenean berriz, ia hasieratik izan genituen neskak taldean eta, orain, asko eta asko dabilta kirol honetan. Ibilbide ikaragarria egin dute haietako askok. Esaterako, Lourdes Gorostegi zizurkildarrak.

**Nola dago taldea Danena taldea egun?**

Taldea indarra hartzen ari da berriz ere. Akatsa egin genuen bere momentuan, Olaederra kiroldegira joanda. Kiroldegian jende asko ibiltzen da eta uste

**"GAUZA ONDO LOTUTAKOAN IRITSI DA ERRELEBOA EMATEKO GARAIA"**

genuen bide horretatik jende gehiagorengana iritsiko gine-la, baina ez da horrela izan. Gaztetxorik gabe geratzen ari zitzaigun taldea. Gurean zebiltzan kirolariak adinean gora zetozen, eta ez zegoen erreleborik. Alarmak piztu ziren eta udalera gerturatu ginen proposamen berri batekin. Alde batetik, egoitza berria behar dugula aldarrikatzen dugu eta bestetik, eskolara itzultzea beharrezkoa ikusi genuen. Hori da erreleboa lortzeko bide egokiena eta hala ikusi da. Eskolako haurrekin gabil-tza orain, eta dagoeneko hasiak dira lehiatzen; hori da etorki-zuna.

**Egoitza baten beharra aipatu duzu. Nola duzue kontua?**

Horixe da orain nire erronka nagusia. Talde gisa aurrera egin nahi badugu, behar-beharrezkoa dugu halterofilia egiteko egoitza egoki bat izatea. Zizurkilgo Udalarekin eta Foru Aldundiarekin hainbat bilera egin ditugu, bide horretan zerbait lortzeko. Eskola gisa arituko ginake bertan; gure kirola ezagutu nahi duen orok aukera izan dezan. Gaur egun, kirolari guztiek egiten dituzte pesak eta garrantzitsua da ariketa horiek ondo egiten jakitea. Hori guztia bideratzeko toki egokia behar dugu.

**Eta orokorrean, nola dago halterofilia?**

Mundu mailan, indar handia du. Munduko txapelketan 198 herrialde aritu izan dira lehian, ia munduko herrialde guztiek zuten ordezkari. Kirol olinpikoa da eta horrek bultzada ematen dio. Badira potentzia handiak diren herrialdeak; Txina nabarmentzen da guztien gainetik.

**Aipatu bezala, erreleboa eskatu duzu. Zein izan da arrazoia?**

 **Baserriko haragia Urdaitegi berezia**  
Bulandegi bidea, 1. Zizurkil  
943 69 62 42

**STOP**  
**LIBURUDENDA**  
Agustin Leitza, 27 - 943 591 603 - ANDOAIN







Lan administratiboetan jarri du indarra orain Batis Kortajarena. AIURRI

Seguruenik lehenago egin beharreko zerbait zen. Dele-gatzea garrantzitsua da, baina orain arte ez dugu lortu gauzak behar bezala bideratzea. Ni adinean aurrera noa eta pazientzia ere agortzen joaten da. Horrez gain, belaunaldiak asko aldatu dira, eta ez dut ondo asmatzen haiekin. Konpromisoa da gakoa; gozatzen duten bitartean aurrera egiten dute, baina sufrimendu pixka bat sortzen denean, utzi egiten

dute. Maila batetik aurrera lan handia egin beharra dago eta hori asko kostatzen zaie. Ekaitzek, Joan Anderrek... nik baino konexio hobea lortzen dute gazteekin eta alde horretatik, aurrerapausoa egin dugu. Nire irakasteko moduak ez du balio oraingo gazteekin.

Orain astean behin joaten naiz, entrenamenduak programatzera. Ekaitzek eta Jon Anderrek programazio horiek egiten ikasten dutenean, nik

alde batera egingo dut. Baina argi dut ez dudala inoiz halterofilia utziko. Orain Euskadiko federazioko lehendakaria naiz eta hor halterofiliari laguntzeko beste lan batzuk egitea egokitzen zait, burokratikoagoak. Arlo hau gehiago kostatzen zait, oso epe luzera lortzen dira emaitzak eta ez da erraza, baina garrantzitsua da lan hori ere egitea. Emaitzak etortzen direnean poza ematen du eta horri eu-

tsiko diogu. Nire izaera gehiago doa entrenatzaile lanari lotuta, baina pixkanaka, ari naiz ikasten beste lanetan ere. Ea horretan ere gozatzea lortzen dugun.

Luzatu egin zaigu erreleboa, gauzak ondo lotuta utzi nahi genituelako. Lehiatu ahal izateko, derrigorrezkoa da taldean titulua duen norbait egotea, bestela ezingo litzatekeelako lehiatu. Ekaitz Kortajarena titulua atera du eta horrek ahalbidetu du nik alde batera pausoa eman ahal izatea. Nazioarte mailako lehiara joateko, bigarren mailako titulua behar da. Bigarren titulu hau eskuratzeko beharra ere izango dugu ziurrenik. Ez da bide erraza, baina baliteke laster horretan jarri behar izatea. Horrez gain, begirale titulua ere badago, eskola-umeei mugimenduak erakutsi ahal izateko. Andres Silverak du titulu hau.

#### Zer eman dizu halterofiliak?

Asko eman dit. Ikaragarri gozatu dut. 35 urte inguru nituela konturatu nintzen askoz ere gehiago gozatzen nuela gazteen emaitzekin nireekin baino. Momentu hartan erabaki nuen lehia utzi eta bete-betean presatzaile lanari eustea. Ikaragarri gozatu dut bide horretan. Lorpen ikaragarriak izan ditugu; ezin da gehiago eskatu.

Horrez gain, Espainiako federazioko selekzionatzailea ere izan naiz urte askoan eta horrek mundu osoan zehar bidaiatzeko aukera eman dit. Teknika eta entrenamendu ezberdinak ikastea ahalbidetu zidan eta horrek asko aberastu nau. Entrenatzaile barentzat ikaragarriko aukera da hori. Nik, trukean, lanetik kanpoko nire ordu guztiak eskaini dizkiot.


**Bengoetxea autoeskola**  
 Ikastaro trinkoa. Lortu teorikoa 5 egunetan  
 Andoain 943 594 406  
 Villabona 943 690 057


 943 541 416  
 Nagusia, 22- 20150 Villabona



Danena eta Andoaino txirrindularitza eskolen arteko elkarlanak ahalbidetu du junior mailako taldearen sorrera. AIURRI

## Junior mailako taldea aurkeztu du Danenak

Danena eta Andoaino Txirrindularitza taldeen arteko elkarlanak ahalbidetu du ekimena. Otsailaren 22an egin zuten junior mailako taldeen aurkezpen ekitaldia. Ekitaldi goxoa izan zen Gurea aretoan egindakoa, Danena taldearen iragana, oraina eta etorkizuna islatu zituena

**ERREDAKZIOA** AMASA-VILLABONA  
Kimua dantza taldeko bi dantzarik eman zioten hasiera ekitaldiari. Egun handia zen eta, jendez bete zen Gurea aretoa. Danena txirrindularitza elkarteko lehendakaria, Josu Sarasola izan zen lehena hitza hartzen: "Danena elkar-teak lotura luze eta sendoa

izan du txirrindularitzarekin, nahiz eta 19 urtean taldea desagertuta egon zen. Duela 7 urte Ander Altuna gerturatu zitzaigun txirrindularitza taldea berreskuratzeko asmoa azalduz. Txirrindularitza eskola sortu zen une hartan. Eskerrak eta zorionak Anderri, egindako lanagatik. Bestalde,

eskerrak eman nahi dizkiet gurasoei, proiektu honetan sinesteagatik, Aiztondoko udalei, euren babesagatik; sorrerako momentuan alkate zirenei eta gaur egun direnei; eta baita babesten gaituzten enpresei ere".

Ander Altunak azaldu zuen nolakoa izan zen taldearen

berpiztea: "Danena txirrindularitza eskola sortzeko asmoa niregan piztu zenean, ez nuen etsi; txirrindularitza probatzeko aukera eskaini nahi nien inguruko haur eta gazteei. Zazpi umerekin eman genion hasiera eskolari". Lanean gogor ari da taldea, eta 2024an, Andoaino txirrindularitza taldearekin lankidetzat lotuta, junior mailako taldea izango da aurten martxan. Hamairu txirrindulari arituko dira maila horretan.

Danena taldean hasten den haurrak, beraz, afizionatu maila arterainoko ibilbide osoa etxean egiteko aukera izango du aurrerantzean.

Arrazoi askogatik izango da berezia 2024a Danenarentzat. Izan ere, aurten betetzen bai-





tira 40 urte Danenak talde profesionala atera zuela. Eta ez zen nolanhiko taldea izan hura: "Tourreko eta Espainiako itzulietako etapagaraipean lortu ziren urte haietan. 1985an, bestalde, Emakumeen nazio mailako lehen taldea sortu zuen Danenak".

Bi talde haietako ordezkariak izan ziren Gureako ekitaldian. Mathieu Hermann eta Jokin Mujikak euren ibilbidearen inguruko azalpenak eman zituzten. Gomendioren bat ere eman zien Hermann-ek gazteei: "Elkarrekin lan egin behar duzue, etsi gabe. Ez da bide erraza, baina helburua garbi izanez gero, oso garrantzitsua da tinko eustea. Jarra horrek, ikasbide asko ekartzen ditu bizitzarako". Jokin

Mujikak ere hartu zuen hitza: "Oso garrantzitsua da junior mailako taldea izatea; ingurua, taldea behar baita bidea egin ahal izateko".

#### Aitzindari

Josune Gorostidi eta Txixi Orbegozo, bestalde, emakumeen taldearen inguruan aritu ziren. "Txirrindularitza gustatzen zitzaigun eta horretan aritzeko aukera izan genuen, baina ez genuen geure burua ezerren aitzindarizat. Patxi Alkorta zenak lagundu zigun pausoa ematen eta oso eskertuta gaude harekin", azpimarratu zuen Josune Gorostidik.

Aiztondoko udalen ordezkari gisa, eszenatokira igo ziren Beatriz Unzueta Amasa-Vi-



Artxiboko irudia. KARLIS MEDRANO

## Aiztondo Klasika martxoaren 10ean

lazko etenaldiaren ondoren, eskualdeko errepideetan barrena ibiliko da Aiztondo Klasika. Elite eta 23 urtez azpiko txirrindulariek parte hartuko dute eta, Txomin Perurena eta Patxi Alkortaren omenezkoa izango da.

#### Zizurkilen hasi, Asteasun bukatu

10:00etan ekingo diote lanari txirrindulariek eta, bailarako errepideetan barrena ibiliko dira, Asteasuko helmuga zeharkatu arte. Aurten aldaketak egin dituzte ibilbidean; Ordiziara egiten zuten joan-etorria kendu, eta Aiztondon barrena ibiliko da lasterketa. Baliteke lasterketak trafikoan eragitea, eta garrantzitsua izango da bidegurutzeak zaintzen ari diren bolondresei kasu egitea.

llabonako alkatea eta Xabat Oiartzabal eta Joxe Mari Luengo, Zizurkilgo zinegotziak. Oiartzabalek hartu zuen hitza lehendabizi: "Zizurkilgo Udalaren izenean eskerrak eman nahi dizkiet Danenari eta txirrindularitza federazioari. Udala laguntzen saiatu da, dituen baliabideekin, Aiztondoko haur eta gazteen txirrindularitza aritzeko aukera izan dezaten. Bide horretan laguntzen jarraitzen saiatuko gara".

Txirrindularitza goraipatu zuen Unzueta bere hitzartzean: "Txirrindularitzak oroitzapen onak ekartzen dizkit. Gauza asko eman dizkit, baita kendu ere. Nire bizitzako zutabe garrantzitsua izan zena kendu zidan; nire anaia. Entrenatzen ari zela hil zen, istripu tamal-

garri batean. Momentu hau aprobetxatu nahi dut txirrindulariekiko errespetua aldarrikatzeko". Oinarrizko txirrindularitzaren aldarrikape-na ere egin zuen Amasa-Villabonako alkateak: "Gure herriak Itzulia ekarri du, Tourra ere gure bailaratik pasa da, baina zertarako balio du honek guztiak, gure harrobia eta oinarria ez baditugu zaintzen? Kirola txikitandik sustatzearen garrantzia nabarmendu nahi dut eta ilusio berezia egiten dit gure taldean zaletu gazteak ikusteak".

Ekitaldia borobiltzeko, Danena taldeko txirrindulari guztiak igo ziren eszenatokira. Txalo artean eta pozik eman zioten amaiera arratsaldeari Danenako kideek.



Munttoko parajeen 700 haritz eta pago landatu zituen lagun-taldea, Otietan, Eguzki taldeak deituta. AIURRI

## Baso autoktonoaren aldeko jardunaldiak

Haritzen eta pagoen landaketa eta Baso Biziak plataformako Edu Zabala kidearen hitzaldia antolatu ditu Eguzki talde ekologistak oraindik orain, egungo basogintza politika aldatzeko aldarrikapena ipar izanda

### XABIER LASA ANDOAIN

Hainbat herritarrek hartu zuen parte Leitzarango bailaran burutuzen zuhaitz-landaketan, Eguzki talde ekologistak deituta, martxoaren 2an.

Iyuya (Idoiaga) eta Usabelartza artean dago Munttoko mendi kaskoa, eta handik gertu prestatu zuten landaketarako lur-saila, Aldundiaren eta Andoaingo Udalaren laguntzarekin.

Eguraldia lagun, Otietan goizeko 09:00etan bildu, eta Munttoko parajeetara abiatu ziren. Bertan, 700 pago eta

haritz landatu zituzten denera, eta Eguzki taldeko kideak oso pozik agertu ziren baso autoktonoen alde burututako kanpainak herritarren aldetik izan duen erantzun bikainagatik.

### Basogintza politika, jomugan

Gure basoetan bestelako landaketa-politikak eskatzen dituen Baso Biziak plataformako kide den Edu Zabalak, "Baso biziak eta monolaborantza" izenburuko hitzaldia eman zuen Basteron, otsailaren 21ean.

Zabalak adierazi zuenez, usiaketa azkarra nahi duen basogintza industrialak baztertu, eta bioaniztasuna bermatuko duten baso bizien aldeko aldarria egiten duten EAEko hainbat elkarteek osatu zuten Baso Biziak Plataformaren 2021ean.

Nafarroako taldeak ez dira sartu plataforman oraingoan, hain bestelako errealitatea bizi dutelako hots, lur komunalak nabarmentzen dira bertan, eta ez hainbeste monolaborantza.

Hainbat herri eta hirietako naturaren eta basoen aldeko

elkarteek osatzen dutela adierazi zuen. Hona, horietako batzuk: Eibarko Baso Biziak, Makatzak Arratiako Ekologistak, Zain Dezagun Urdaibai, Soralezeko Baso Biziak, Debanatura, Basos Elkarteak, Elgoibarko baso Biziak, Lemoizi Natura, Haritzalde Naturzaleen Elkarteak, Euskal Herriko hazien Sarea, Landarlan, Amezti Lezo, Sagarreta Hernani...

Nahiz eta talde guzti horiek aspalditxotik ikusi kaltegarria EAEko erakundearen baso politika, horiek "banda marroia- ren" gaitzaren eraginez azken urtetan egin duten eukaliptoaren aldeko apustuak eman die azken bultzada elkartzeko, eta aldarrikapenak elkarrekin haizatzeko.

"Banda marroia" izeneko ondoak eragindako gaitzak jarri ditu galbidean, hain zuzen ere, intsinis pinuak.

Plataformak zer nolako ekimenak burutu dituen orain arte, zerrendatu zuen Zabalak: monokultiboaren aurkako eta



# ORMENDI KIROLAK

## AITAREN EGUNA





landaketa autoktonoen aldeko kanpainak; eukaliptoaren landaketaren aurkako eta moratoriaren aldeko mozioak udalerrietan aurkeztea; mahai berdea osatzeko udaletan mozioak aurkeztea; zuhaitz autoktonoen landaketa (18.000 zuhaitz, 20 espezie baino gehiago eta 60 hektareetan); landare exotikoen identifikazioa; erreken garbiketak; bisita gidatuak basoetara; base-rritar, lur-jabe edo udalerrietan 15 urtetarako lagapen-hitzarmenak sinatzea lur sailak ustiatzeko...

**Basoa zer den, zer ez den**

Edu Zabalak basoa zer den eta ezer ez den zehaztu nahi izan zuen, hitzaldiaren hasieran. Basoa bioaniztasuna garatzen duen sistema konplexua dela zehaztu zuen, eta besteak beste “honako ezaugarriak bete behar ditu: zuhaitz autoktonoaz osatua, tokiko fauna eta flora nagusi dituen, eta baita onddoak eta lurzoruko mikroorganismoak ere; giza esku-hartzerik gabe garatu dena; onura ekosistemikoak eskaintzen dizkiguna; larrialdi klimatikoaren erronei hobeto erantzuten diona...”.

Basoa zer ez den definitzerakoan, landaketa mota batekin lotu zuen, zuzenki: “ilaran, adin bereko monolaborantza uniformizatua; aniztasun genetiko baxukoa, etekin industrial hutsa duena; 15-25 urtean *matarraseko* mozketaren bidez ustiatzen dena; lurrari ezer itzultzen ez diona; bioaniztasuna nabarmen murrizten duena...”.

Zabalak ekosistemikoaren kontzeptua balioetsi zuen hitzaldian. Ekosistema baten funtzionamenduak (espezie anitzez osatutako basoak, erre-



Edu Zabala Baso Biziak plataformako kidea eta Eguzkiko Imanol Etxeberria, Olaia Garcia, Uxue Iturriondobeitia eta Garikoitz Plazaola, Basteron, otsailaren 21ean. AIURRI

ka garbiak...) gizarteari ekartzen dizkion onurei deitzen zaie zerbitzu ekosistemikoak, edo ingurumen-zerbitzuak; pertsonen osasuna, ekonomia eta bizi-kalitatea hobetzen dituzte. Horren adibide dira ur garbiaren ekoizpena, lurraren eraketa, klima erregulatzea, polinizazioa, etab.

**Herri lurren garrantzia**

Udalerririk lurren jabe izatearen garrantzia izan zuen hizpide, Zabalak Basteroko hitzaldian. “Lurra ondare estrategikoa da, eta ezin dugu suntsitu epe laburreko onura pribatu batzuen izenean. Apustu garbia egin behar dugu lurraldea guztion ondasun bihurtzeko, horrek dakarren potentzialtasun guztiarekin”.

Erantsi zuenez, kapitalak basoak behar ditu dirua ekoizten segitzeko, eta hortaz, arriskuan daude. “Are gehiago, jakinda, lehen sektorea bazterrean geratzen ari dela, belau-naldi-erreleborik ez dagoela

bertan. Arriskua benetakoa da, baldin eta datorren belaunaldiak ez badu interesik agertzen basoaren etorkizunarekin, lurra prezio merkean salgai jar dezakeen heinean... Izan ere, baso enpresak etorriko dira (jada, etortzen hasiak dira Kantabriatik-eta), eta esku bakaretan geratuko dira gure basoak. Lurra ustiatuko dute nahi adina (monolaborantza, zentral eolikoak, eguzki parkeak...), eta denbora jakin batera ikusten dutenean jada etekinik ezin diotela atera, alde egingo dute; industrian gertatu ohi den deslokalizazio prozesua gertatuko da”.

Andoaingo lur-eremuak aztertzen hasita, pozteko eta kezkatzeko datuak azaldu zituen Zabalak: “Euskadi.eus webguneak eskaintzen duen geobisoreari erreparatzen badiogu, pozgarria den datua agertzen zaigu Andoaingo herriari dagokionez, “%77 lur publikoa dela, alegia. Horrek esan nahi du herritarren esku

egon daitekeela bere kudeaketa; ni Eibarkoa izanik, egundoko inbidia ematen didala esan behar dizuet, ez baitauek lur-sail publikorik. Baina bestalde, andoaindarrek badaukazue zertaz kezkatua, izan ere, landaketaren %68a monolaborantza baita”.

Zabala oso kritiko agertu zen EAeko erakunde publikoek maiz zabaltzen dituzten mezuak hizpide hartuta. Praktikan, adierazten dutenaren kontraritzen direla adierazi zuen. “Herri Onurarako Mendiaren izendapena nabarmendu, eta, hainbat kontzeptu airatzen dituzte segidan: hala nola, lurra higaduraren aurrean babestu, erregimen hidrologikoa erregulatu, klima aldaketaren kontrako borroka, dibertsitate biologikoa kontserbatu, baso sutearen arriskua murriztu, pasaia kontserbatu, herritarrentzako aisialdia sustatu, landako biztanleria mantendu... Baina egiaz, juxtu kontrako politikak bultzatzen dituzte”.



# Iraola

Aholkularitza - Artezkaritza

**ENPRESEN AHOLKULARITZA**  
 Piskala, dirukontuena, juridikoa, laborala, aseguru orokorrak  
 Kale Nagusia, 37 - AMASA-VILLABONA  
 Tel.: 943 692 763 • Faxa: 943 692 774



Miren eta Juanito Geresta, mende laurdenean gertu sentitu duten Joxelu anaiaren erretratuarekin. AURRI

## Gerestaren heriotzaren 25. urteurrena hartuko dute gogoan

Jose Luis Gerestaren heriotzaren 25. urteurrena beteko da martxoaren 20an, eta modu berezian hartuko dute gogoan, Zizurkilen. Miren eta Juanito anai-arrebei sinesgaitza egin zitzaizen suizidioaren bertsio ofiziala orduan, eta bereari eusten diote.

### XABIER LASA ZIZURKIL

Jose Luis Geresta Mujika hilik agertu zen, buruan tiroa zuela, Errenteriako Zamalbide auzoko belardi batean 1999an. ETA kidea zen, eta aurreko egunetan ihesean ibili zen Oiartzun, Hernani eta Errenteria aldean. Berarekin topo egin zutenen testigantzek adierazi zuten, laguntza eske ibili zen hagine-tan "txip" bat jarri zioten sentazioa zeukala esanez.

Epaileak, suizidioaren bertsio ofizialarekin itxi zuen kasua. Familiaren helegiteen ondoren, ordea, 2000ko otsailean, Gipuzkoako bigarren epaile baten aukerak jarri zuen aurrenekoaren ebazpena, adieraziz haren ebazpenak ez zeukala

oinarri juridikorik, suizidioa aukera bat zela, eta bi haginaren erazteak eta heriotzak bazutela harremana. Azkenean, honek ere kasua behin-behinean artxibatzea erabaki zuen, delituaren egileak ezezagunak zirela argudiatuta.

### Gazte ausarta eta ekintzailea

"Alaia, ekintzailea, ausarta zen Ttotto. Festazale amorratua bai, baina aurrez festa antolatzeko agudo prestatzen zena ere bazen; bazekien mugitzen Zizurkil goiko herri giroan". Era horretan definitu dute anaia, Miren eta Juanito Geresta Mujikak. "Ekimentsua zen, eta zerrategian eta basogintzan zenbait urtetan jardun

eta gero, obretarako makinaria erosi eta enpresa sortu zuen".

25 urte igarotzera doazela, aitortzen dute anaia egunero daukatela oroimenean, eta bere hutsunea are samingarragoa suertatzen zaiela sinetsita ez dela onargarria suizidioaren bertsio ofiziala.

Atzera begira jarrita, Juanitori gurasoak etorri zaizkio gogora. "Aitari eta amari ederki sufritzea egokitu zitzaizen. Egin kontu, lau hilabete lehenago, beste semea hil zitzaizen, minbiziak jota. Behar bada aitak gordeago eraman zuen tristezia; badakizu nolakoak garen gizonak sentimenduak adieraztekoan... Amak agerigoan uzten zuen barru-min

hori, eta nolabaiteko harrotasunarekin zeraman semearen oroitzapena. Nahiz eta egian eta justizian oinarritutako aitormen ofizialik ez jaso, ohar-tzen zen Zizurkilen semea maite zuela jendeak, urtero egin ohi den omenaldiarekin eta bestelako adierazpenekin".

Miren eta Juanito Geresta eskertuta daude, anaiaren oroitzapena bizirik mantentzeko asmoz Zizurkilgo herri-tarrak urtero mugitu izan direlako.

### Justizia ezarekin, saminduta

Jaurlaritzako Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako sailak, 2016an, "Oroitzapenezko ekintzak eta biktimen aitortza sustatzen laguntzeko" udal guztiei eskaini zien agiri informatiboan, Zizurkili dagokion txostenean, bi kasu ageri dira. "ETAk bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketan" atalean, ETAk 1976an hil zuen Julian Galar-tza Aiastui aipatzen da. "Segurtasun indarrek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketan" atalean, berriz, polizia 1981ean torturapean hildako Jose Arregi Izagirre hartzen du kontuan.

Jaurlaritzaren txostenek atal bat gorde ohi dute bizitzeko eskubidearen urraketan atalean, "nahikoa argitu ez direla-eta kalifikazio hori behin-betiko baietsizat ezin eduki dezaketen kasuak" biltzeko. Baina Gerestaren kasua ez dago hor sarturik. Esate baterako, Urnietari dagokionez, horrelaxe dago kalifikatua Gurutze Iantzi, "behar beste argitu ez" den kasutzat jota.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, 2016an urtean ere, 1978 eta 1999 bitartean izandako "motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko" dekretu-legea jarri zuen indarrean.

Dekretu-lege horri erantzunez, Geresta Mujika familiak anaiaren kasua biltzen duen



txostena aurkeztu zuen, Aitor Ibero abokatuak eta Itsaso Idoiaga forentseak egindako ekarpenekin, batik bat.

**Aitormen soziala bai, ofiziala ez** Miren eta Juanito Gerestak adierazi dutenez, anaiaren inguruan bizi izan duten aitormen sozialak asebetetzen baditu ere, mingarria egiten zaie urte guzti hauetan aitormen ofizialik ez jaso izanak. "Hildakoak lehen, bigarren eta hirugarren mailakotzat katalogatzen dituzte Euskal Herrian, eta anaia azpi-azpian geratzen da", Mirenek dio, atsekabez.

Alde horretatik, igaro den mende laurdenean konbentzimendu osoa eduki dute 1999an anaiaren kasuan jardun zuten ertzainek, forentse ofizialak, epaileak eta klase politikoak ez zutela sakontzeko borondaterik eduki, eta beraz, ez dela egiarik ezagutu, eta gutxiago justiziarik ezarri edo aitortzarik eskaini.

Hala dio Mirenek, arrebak: "Epaileak kasua behin behinekotasunez artxibatu egin zuen. Froga berriren bat (sekretupeko agiri ofizialaren bat, testigantzen bat...), agertuko balitz, berrabiarazi liteke ikerketa. Sekula ez da itxaropena galdu behar, garai berriak etorriko direla diote... Baina ez gara batere baikor, ez zirrikitu judizial hori ireki ahal izatearekin, ezta ere 2016ko dekretu-legeak aitormen ofizialik ekartzearekin".

### Elementu ugari, kontraesankorrak

Bere heriotzaren 20. urteurrena bete zenean, 2019an, jaioterrian, mahai-ingurua osatu zuten Aitor Ibero abokatuak, Itsaso Idoiaga forentseak eta Juanito Geresta anaiak, Igotz Alkorta kazetariak gidatuta. Bertsio ofiziala gezurta zezaketan hainbat elementu azaldu zituzten bertan.

Idoiagak adierazi zuenez, bigarren autopsia egin zion Gerestaren gorpuari, familiak



2019ko omenaldi-ekitaldia, Pello Mari Otaño plazatik gertu dagoen oroigarrian. AIURRI

eskatuta. Lehen autopsia egin zuen auzitegi medikuaren profesionaltasun eza salatu zuen: "Epailea, forense ofiziala eta hirurok bildu ginen gelan, eta neuk bakarrik ekin nion gorpua azterketari. Ahoa ireki, eta ohartu nintzen euli-arraultzez beteta zeukala. Bi hagin erazuta zeuzkan eta hirugarren bat moztuta. Epaileak orduan forense ofizialari galdetu zion ea ez ote zion aztertu ahoa. Honek, ezetz. Epaileak, orduan, azterketa modu egokian egiteko eskatu zion".

Hiru informazio iturri (Ertzantzaren atestatua, lehenbiziko forentsearen txostena, eta, berak topatu zituen probak) kontrastatu ostean, Idoiagak ondorioztatu zuen suizidioaren hipotesia auzitan jarri zezaketan hainbat elementu kontraesankor pilatzen zirela. "Haginei dagokienez, Madrildik heldu zen txostenaren arabera, heriotzaren ostean izan ziren erazuziak. Baina ez ziren gorpua inguruan azaldu, eta

## "EZ DA SINESGARRIA SUIZIDIOAREN BERTSIO OFIZIALA"

beraz, baten batek kentzeaz gain eraman egin zituen. Pertsona hori edo horiek, heriotzaren unean han zeuden edo gerora azaldu ziren".

Gerestak buruan zeukan tiroak ere zalantza ugari eragiten zituela zehaztu zuen Idoiagak. "Eskuinetik ezkerre-egina zen, baina pistola ezkerrean agertu zen. Normalki pistola batek ez du halako jauzia egiten".

Bestalde, balistikako frogek adierazten zuten, "ez zen odol arrastorik agertu ez eskuineko eskuan ezta pistolan ere, nahiz tiroa pistolak garezurra ukitzen zuela egin; pistola oso garbia zegoen, harrigarria bada ere". Azkenik, beste elementu susmagarria aipatu zuen Idoiagak: bolboraren partikularik ez agertu izana, ez eskuan ezta pistolan ere.

### Ikertzeko borondate falta

Aitor Ibero, familiaren abokatuak, kasua argitzeko instantzia ofizialek erakutsi zuten borondate falta kritikatu zuen, 2019ko mahai-inguruan. "Lehenengo egunetik, polizia, epaileak, forenseak, barne ministerioak, politikariek eta prentsako zati handi batek suizidioaren hipotesia besterik ez zuten zabaldu. Guk behin eta birritan

## Egia, itzaletik argira

### 'Joxelu Geresta: 25 urte egia biler' 11:30: Urkamendira

11:30: Urkamendira igoera egingo da plazatik. 12:00: Muralaren bistaratzeta eta ekitaldia. Ondoren, bideo emanaldia.

**Martxoaren 16an,** larunbatarekin.

eskatu ostean lortu genuen epaileak egin zituzten beste zenbait ekimen, kontraesanez beteriko kasu hartan. Egia esanda, ez epaileak ezta fiskalak ere ofizioz ez zuten inongo frogarik eskatu, gu ibili ginen beti atzetik. Azkenean, zenbait urrats txiki lortu genituen, baina gaur da eguna ez dakiguna zer gertatu zen".

Iberoren ustetan, "Estatuarentzat hau gerra bat izan da, eta horretan arma ezberdinak erabili izan ditu. Tamalez, urte asko igaro dira eta ez dute ezer aitortuko, ez Gerestaren kasuan ezta txosten ofizialek aipatzen dituzten bost milatik gora torturatuen kasuan".



Herritar asko gerturatu zen Villabonako otsaileko osoko bilkurara; Xuharren inguruko mozioa zuten eztabaidagai. AIURRI

## Tentsioa eta eztabaida, Xuhar Pazosen kasuaren inguruan

Otsailaren 28an Xuhar Pazosi babes eskaini eta kasuaren salaketa publikoa egiten zuten mozioa eraman zuten osoko bilkurara. Bertaratutakoen haserre piztu zuten oposizio kideen hitzek. Xuhar Herri Plataformak adierazpena kaleratu du bertan esandakoei erantzuteko

**ERREDAKZIOA** AMASA-VILLABONA  
Tolosako inauterietan, otsailaren 12an zauritu zuten Xuhar Pazos gazte billabonatarra. Ertzaintzaren karga batean, foam bola batek zauri larria eragin zion eskuineko begian eta ebakuntza egin behar izan zioten. Geroztik, bide luzea egin du kasuak.

### Herri plataforma

Otsailaren 27an, Xuhar Herri Plataforma sortzeko bilera egin zen Villabonan. Iragarri zutenez, plataformaren helburu nagusiak elkartasun kanpainak antolatzea, salaketa publikoa egitea, eta plan ekonomikoa garatzea izango dira. Horrekin batera, otsailaren 28rako Vi-

llabonako Udalean deituta zegoen osoko bilkurara gerturatzeko deia zabaldu zuten herrian.

### Mozioa eztabaidagai

Izan ere, Xuharri babes adierazteko mozioa aurkeztu eta eztabaidatu baitzen egun horretan, osoko bilkuran. Xuhar Herri Plataformak prestatutako mozioa, herritar batek irakurri zuen. Gazteari elkartasuna adierazteaz gain, gehiegikeria polizialak ere salatzen ziren mozioan.

Mozioa EH Bilduren aldeko botoekin onartu zen. Oposizioan dauden EAJ-PNV eta PSE-EE, aldiz, aurka agertu ziren. Polemika bizia sortu

zen batzar aretoan, EAJ-PNV-ko zinegotzi den Arantza Rojoren hitzen harira. Senideei elkartasuna adierazi zien, baina era berean, gertaerari buruzko hainbat aipamen egin zituen. Besteak beste, gau hartan Tolosan egon ziren liskarrak zirela eta, Ertzaintzaren interbentzioa justifikatu zuen. Horren harira, Xuhar ez zela tirokatua izan adierazi zuen, Foam bola batek errebotez jo zuela baizik. Hala, ikerketa burutzeko dagoenez, balorazio gehiago egin aurretik denbora eskatu zuen.

PSE-EEko Eduardo Gonzalez bozeramaileak, bere aldetik, senitartekoei laguntza eskaini zien eta ikerketa burutu arte

ez zuela baloraziorik egingo erantsi zuen.

### Haserre

Herri Plataformako kideen, nahiz batzar aretoan bildutako herritarren haserre piztu zuten adierazpen hauek eta zenbait hitzartze egon ziren bertan. Julen Zelarainek, esaterako, hala adierazi zuen: "Herritar bati funtzionario batek bere eskubideak urratzen badizkio, nork babesten du herritarra? Erakundeen erantzunkizuna da; zuek ziurtatu behar duzue herritarren eskubideak errespetatzen direla eta ez dagoela funtzionario horien aldetik gehiegikeriarik. Bestela, indefentsioak sentitzen gara eta horregatik etorri garagaurhona, indefentsioak sentitzen gare-lako Xuharren kasuarekin. Gaur EAJ eta PSOEn hitzartzeekin indefentsioak sentitu gara, kontudentzia gehiago espero nuen, ikerketa sendoa eskatuz". Bere hitzartzea amaitzeko, Xuharren aitakesandako hitzak ekarri zituen gogora, txalo artean: "Bada aldatzeko garaia, eta hori da herritarrok eskatzen duguna".

### Herri Plataformaren adierazpena

EAJ alderdiko Arantza Rojok osoko bilkuran esandakoei erantzuteko, adierazpena kaleratu zuen Xuhar Herri Plataformak martxoaren 1ean: "Foam jaurtigaiak ez ziren "kasualitatez" parranda giroan zeuden gazteen buruetan erori, Arantzazu anderea. Ertzaintzak esku-hartze despropor-tzionatuan parranda giroan zeuden gazteak tirokatu egin zituen. Pleno aretoan geunden herritarren, familiaren eta Xuharren beraren begia amorreru malkoz busti zituzten egoe-ra lokazteko erabili zenituen hitz higuigarriek. Gibela behar da gero. Ardurak hartzeko unea da, argibideak ematekoa eta ez sinesgaitzak diren hipotesiak elikatu eta gaiari bizkarra ematekoa. Bada garaia gauzak aldatzeko".





Auzolanean prestatzen dituzte produktu-sortak. AIURRI

## Martxan da Errigora ekimenaren kanpaina berria

Martxoaren 13ra bitarte, zabalik egongo da eskaerak egiteko epea. Apirilko azken astean hasiko da banaketa

### ERREDAKZIOA ESKUALDEA

Dagoeneko martxan da Errigora ekimenaren kanpaina berria. Kanpaina honetan parte hartuz, bertako elikagaien alde egiteaz gain, euskara indartu eta auzolanari bultzada ematen zaio. Zabalik dago eskaerak egiteko aukera. Hamar urteko bidea egin du dagoeneko Errigora ekimenak eta urte horietan zehar ekoizlearen jatorrizko prezioan, euskaraz etiketatuta eta auzolanean ehundaka herritan gauzatutako produktuak eskura daitezke. Haziz joan da ekimena, bestelako ekoizle-kontsumitzaile hartu-emanera irauten.

Nafarroa hegoalde eta erdialdeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoak, arroza, pasta, lekaleak eta fruitu lehorrak eskaintzen dituzte aukeran. Guztiak dira kalitate bikainekoak eta euskaraz etiketatuta.

### Eskaerak

Kanpaina urtean behin egiten da eta, beraz, eskaera urte osoko kontsumoan pentsatuta egitea komeni da: urtean behin, urte guztirako. Horregatik, olio 5 litroko bidoietan eskaintzen da eta gainontzeko produktuak sortetan. [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus) webgunean egin daiteke produktuen eskaera.

### Banaketa

Banaketa apirilaren azken astean eta maiatzaren lehen hamabostaldian izango da eta, salbuespenak salbuespen, produktu guztiak aldi berean jasotzen dira. Eskaera egiterakoan, produktuak jasotzeko puntua ere aukeratu behar da eta bertan zehaztutako egun eta ordutegian pasa, produktuak jasotzera. Berrehun herritan daude banaketa-guneak.



Sariketako irabazleak eta zenbait parte-hartzaile, Agirresarobekin. AIURRI

## Mikroipuin lehiaketako sariak banatu dituzte

Otsailaren 23an, Larraulgo liburutegian egin zuten Mikroipuin Lehiaketako sari-banaketa ekitaldia

### AINHOA GIL LARRAUL

Arratsalde polita pasa zuten larrauldarrek otsailaren 23an. Udal liburutegian elkartu ziren, Mikroipuin lehiaketako sari-banaketa bertatik bertara jarraitzeko. Banaketa hutsetik harago, ekitaldi ederra prestatu zuten Larraulen. Ixabel Agirresarobe ipuin kontalari usurbildarrak egin zituen gidari lanak; ipuin sorta bat kontatuz ekin zion ekitaldiari, umoretsu. Adi izan zituen haur eta helduak, bere kontakizunetan erabat murgilduta.

### Ipuinekin jolasean

Larrauldarren txanda etorri zen ondoren. Agirresarobek proposatutako jolasaren bidez, irudimena landu eta ahozko-tasuna astindu zuten. Unean bertan ipuinak asmatu eta guztien aurrean kontatu zituzten, talde txikitan banatu-

ta. Umore ederrean aritu ziren guztiak, kontu-kontari.

Sari-banaketari ekin zioten ondoren. Ipuin laburra eta ilustrazioa aurkezten dute sariketako parte-hartzaileek eta hamaika lan aurkeztu dituzte aurtengo edizioan. Ixabel Agirresarobek datozen edizioetan parte hartzeko gonbita luzatu zien larrauldarrei, ekimena balioan jarriz. Hauexek izan dira aurtengo sarituak:

### A maila:

1. Mael Sanchez
2. Jakes Aranburu

### B maila:

1. Ekhi Ruiz
  2. Oinatz Mujika
- Aipamen berezia: Elene Azkue  
Ilustrazio onenaren saria: Xuban Mujika.  
Arratsaldea borobiltzeko, txokolata beroa dastatu zuten bertaratu zirenek.

# AGENDA

## MARTXOAREN 8TIK AURRERA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. Tel.: 943 300 732 / 619 163 537 / aiztondo@aiurri.eus / diseinua@aiurri.eus

### ERAKUSKETA

#### ANDOAIN

**Salerosiak. Esklabotasunera bidaiak**

Apirilaren 20ra arte.  
Basteroko erakusketa aretoa.

#### AMASA-VILLABONA

**Aniztasunak erakusketa**

Martxoaren 13tik 27ra.  
Gurea erakusketa gela.

### MENDIZALETASUNA

#### AMASA-VILLABONA

**Aizkardiren ibilaldi neurtua**

Martxoak 24, igandea.

### MUSIKA

#### ANDOAIN

**Haize-arrosa taldea**

Martxoak 8, ostirala.  
20:30, Bastero. 6 €

### DANTZA

#### AMASA-VILLABONA

**Dantzari eguna**

Oinkari, kalejira eta emanaldia.  
Martxoak 9, larunbata.  
11:00-12:30.

### DOKUMENTALA

#### AMASA-VILLABONA

**Arantzazu**

Pello Sarasua zuzendariarekin.  
Martxoak 19, asteartea.  
19:30, Gurea.

### HAUR-ANTZERKIA

#### AMASA-VILLABONA

**Loti ederrak**

Martxoak 10, igandea.  
17:00, Gurea.



#### ANDOAIN Jabekuntza eskola, udaberriko ikastaroak

Hainbat lantegi jorratuko dira: Filosofia eta feminismoa. Arte garaikidea eta feminismoa. Batukada feminista. Brikolaje oinarrizkoa, etab.  
Izena emateko: [jabekuntza.andoain.eus](#).

### ANTZERKIA

#### AMASA-VILLABONA

**Yerma**

Martxoak 17, igandea.  
19:30, Gurea.

### KIROLA

#### AMASA-VILLABONA

**Eskola Kirola ekimeneko topaketa**

Martxoak 16, larunbata.

#### ASTEASU

**Anttine trail**

Martxoak 23, larunbata.  
09:30, Iturriotz-Ernio.

### KORRIKA

#### ADUNA

**Afaria**

Afalostean Andoni Ollokiregiren kontzertua.  
Martxoak 15, ostirala.  
20:30, Zimiterioa.

#### ASTEASU

**Korrika txikia**

Martxoak 15, ostirala.

15:00, Eskola.  
17:00, Herriko plaza.

### IKASTAROAK

#### AMASA-VILLABONA

**Antzerkia helduentzat**

Iraitz Lizarragaren eskutik.  
Apirilaren 11tik ekainaren 20ra.

#### Serigrafia ikastaroa

Virginia Ameztzyren eskutik.  
Apirilaren 9tik 30era.

### IPIIN KONTAKETA

#### ZIZURKIL

**Ahoz aho**

Helduei zuzendutako emanaldia.  
Marta Saenz eta Iñaki Carretero.  
Martxoak 10, igandea.  
19:00, Plazida Otaño.

### HITZALDIA

#### ZIZURKIL

**Irulegiko eskuia; benetan ez da ezer ulertzen?**

J.I. Hartsuaga.  
Martxoak 20, asteazkena.  
18:00, Plazida Otaño.

### ZINEMA

#### AMASA-VILLABONA

##### GUREA ZINEMA

**Sala de profesores (Das lehrerzimmer)**

Martxoak 9, lar. 19:30, 22:00.  
Martxoak 10, igandea. 19:30.  
Martxoak 11, astl. 19:30.

**Priscilla**

Martxoak 16, lar. 19:30, 22:00.  
Martxoak 18, astl. 19:30.

#### ANDOAIN

##### BASTERO KULTURGUNEA

**Kung fu panda 4**

Martxoak 16, larunbata. 17:00.  
Martxoak 17, igandea. 17:00.

**Sala de profesores (Das lehrerzimmer)**

Martxoak 9, lar. 19:30, 22:00.  
Martxoak 10, igandea. 19:30.  
Martxoak 11, astl. 19:30, 22:00.

**Priscilla**

Martxoak 16, lar. 19:30, 22:00.  
Martxoak 17, igandea. 19:30.  
Martxoak 18, astl. 19:30, 22:00.

#### ZIZURKIL

##### ATXULONDO

**Bizkarsoro**

Martxoak 21, osteguna. 19:00

### ANTTINE EGUNA

#### ASTEASU

**Ospakizuna**

Familiarteko jolasak.  
10:00 - 11:30 Herriko plazan.  
Herri kirolak vs. crossfit.  
11:30 - 13:30 Herriko plazan.  
Bazkaria. 14:30 Herriko plazan.  
Bazkalostean Karaokea.  
17:00 Txoznan.  
DJ. 00:30 Patxinen.  
Martxoak 16, larunbata.

### OSPAKIZUNA

#### ZIZURKIL

**Txapela Eguna**

Mus txapelketa, Bukalai, lehiaketa, afaria eta txapela jartzea.  
Martxoak 9, larunbata.



## ZOZKETA

### Errigora ekimeneko saskia, zozketa berria martxan

#### ERREDAKZIOA ANDOAIN

Mizpiradik eskainitako sagardo-kaxaren irabazlea **Jon Arevalo Iturzaeta** izan da. Zorionak!

#### Errigora

Kanpaina berriko produktuak zozkatuko dira oraingoan. Parte hartzeko hitz-gakoa "**Errigora**" izango da. Parte hartzeko moduak:

- Whatsapp: 619 163 537.
- Emaila: [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus).
- Telefonoa: 943 300 732.

Irabazlea martxoaren 22ko Aiurrin emango dugu.



Udane Jauregi, olioa eskuetan.

### Aiurriko harpidedunak Lezaun upategiak eskainitako bazkarian

#### ERREDAKZIOA ANDOAIN

2023ko azken hamaboskarian, Lezaun upategian bi lagunentzako bazkaria zozkatu genuen. Errigora ekimenarekin batera antolatutako ekitaldia izan zen, eta horri esker Jose Luis Segurola harpidedunak bi lagunentzako bazkaria irabazi zuen. Milesker Errigorari, upategiari eta Aiurriko harpidedunei! Ikusten duzuenek, harpidedun izateksaria dakar.




Jose Luis Segurola Lezaun upategian, Errigorak eskainitako bazkarian. AIURRI

## ZORION-AGURRAK



ANDOAIN  
**Zorionak Aner!**  
Otsailaren 26an 9 urte bete ditu Anerrek! Zorionak eta muxu handiak etxeko guztien partetik.



ANDOAIN  
**Irati Nuñez Larrea**  
Pila bat maite zaitugu. Denon partetik, muxu handi bat.



ANDOAIN  
**Hegoa Mariezkurrena Zubillaga**  
Zorionak bihotza, 4 urte! Asko maite zaitugu! Muxu potoloak! Iker, Haitz, amatxo eta aitaxo



ANDOAIN  
**Zorionak Alaia**  
Martxoaren 8an 12 urte betetzen dituzu eta gogotsu gaude zurekin ospatzeko. Harro gaude zutaz! Jarraitu horrela! Asko maite zaitugu txikitina!

## MERKATU TXIKIA

#### ALOKAGAI

Etxebizitza alokagai Anoetako herrian. Bi logela, egongela, eta sukaldia. Tren geltokitik gertu. [yogurrinn@hotmail.com](mailto:yogurrinn@hotmail.com)

#### LANA

Pertsona bat behar da Zizurkilen, heldu bat zaintzeko. **655 717 625**

Pertsona baten bila gabiltza Andoaingo taberna batean lan egiteko. Lanaldia: 10 ordu astean. Astelehenetik ostiralera 2 goiz (bakoitzean 3 orduko lanaldia), ostegun arratsaldeak (2 ordu) eta hamabost egunean behin igande goiz bat (2 ordu). **675 989 610**

## Jaio da!



**Eman jaiotzen berri Aiurrin eta Interneten. Deitu 943 300 732 telefonora, bidali mezua whatsappez 619 163 537ra edo zatoz egoitzara.**

Argitaratu baino astebete lehenago jasotako jaiotzak bakarrik kaleratuko ditugu.

## HERIOTZAK

- **Miguel Zarza Guijarro.** Otsailaren 24an, Amasa-Villabonan
- **Quintina Marquez Magariño.** Martxoaren 2an, Amasa-Villabonan
- **Ramoni Altuna Altuna.** Martxoaren 4an, Amasa-Villabonan
- **Joxepa Munita Bordaberri.** Otsailaren 21ean, Andoaingen
- **M<sup>a</sup> Vicenta Garrido Arroyo.** Martxoaren 3an, Andoaingen
- **Tere Loitegi Yaben.** Otsailaren 26an, Zizurkilen

**ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732**  
edo [publizitatea@aiurri.eus](mailto:publizitatea@aiurri.eus)

**Eskelak  
Aiurrin:  
90 euro**





# Eutsi gureari!



Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13



Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

[errigora.eus](http://errigora.eus)





MARTXOAK 8 / EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



# ZUETAZ HARRO

Ahalduntako emakume bakoitzaren atzean ahalduntzera bultzatu duten beste emakume batzuk egon dira.





# GURE BIZITZEKIN NEGOZIORIK EZ

## MARTXOAK 3

ADUNA - Lilatoia! Adunako emakume korrikalariak animatzera!

## MARTXOAK I eta 7

VILLABONA - Autodefentsa tailerra gaztetxoentzat Subijanan.

## MARTXOAK 8

ZIZURKIL - 18.30 Irradaka Joxe Arregi plazan.

AIZTONDO - 19.00 MANIFESTAZIOA Zizurkilgo Joxe Arregi  
plazatik hasita.

ASTEASU - 19.00 ZTANDAP antzezlanaren udaletxean. Ondoren  
Rosko feminista.

ASTEASU - 21.00 Afaria Iturriondon. Ondoren bingoa.

## MARTXOAK 9

ZIZURKIL - Emakumeen eguneko irteera.

ADUNA - 19.30 "Pototan" bakarrizketa Elordi Aretoan.

ADUNA - 21.00 afaria Zabala sagardotegian.

## MARTXOAK 22

VILLABONA - 18.00 "Arrazistak al gara?" Txoko Morean (Lurgatz)

## AIZTONDOKO MUGIMENDU FEMINISTA

Laguntzaileak:



AMASA VILLABONA  
Villabonako Udala



Aiztondo



ASTEASUKO



ADUNAKO UDALA